

3.FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko beste elkarteekin elkarlanean aritzea funtsezkoa dela deritzogu.

Alde batetik, finantzazioarekin lagunduko diguten elkarteak aipatuko ditugu: polizia eta Gasteizko Udalaren eta produktuan interesatuta dauden akzionistak. Beraien laguntza ekonomikoari esker, negozio ideia garatzeko aukera izango dugu. Gainera, poliziarekin etengabeko kontaktuan dihardungo dugu, sakaletak kudeatzeko.

Segurtasun erakundeei edo poliziarri gure eraztunak erasotzaileari edo lapurrari buruzko kontu asko argituko lieke, adibidez mikrofonoaren bidez harrapatutako elkarrizketei esker. Udalak ere, gure proiektuaren alde egingo luke, izan ere, herriaren segurtasuna bermatzea dugu helburu, indarkeria murriztuz eta biztanleen ongizatea sustatuz.

Gure azkenengo finantza iturria, akzionistak dira. Hauen bidez dirua lor dezakegu gure produktua hobetzeko eta beste merkatu batzuetarako irekitzeko, gainera hasieran sortutako zorrak erraz ordaindu ahal izango genituzke. Baina kasu honetan ez dira guztiak gauza onak, akzionistak dirua inbertitzen dutelako gero diru gehiago irabazteko, orduan iturri hau oso kontrolatuta egon beharko da.

Bestetik, hornitzaileak ere oso garrantzitsuak dira berain laguntzarik gabe proiektu hau ezin izango baitzen aurrera atera, gu talde txiki bat gara ia baliabiderik gabekoak eta lan hau handiegia da guretzat. Hornitzaile horiek gure eraztuna ekoizteko material guztia salduko digute.

Bukatzeko, Emakunde Erakundearekin lankidetzan arituko gara. Emakunde, Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, berdintasunerako politikak diseinatu, bultzatu, haien inguruan aholkatu, koordinatu eta ebaluatzen dituena, bai eta gizartea sentsibilizatzen duena ere, EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko xedez. Azkenean gure produktua emakumeentzat bideratuta dagoenez gehien bat, uste dugu gustura hartuko dutela gure proposamena.